

FUNTSEZKO JARDUERA

Enpresa askotan bezala, gure funtsezko jarduera gure produktuaren ekoizpenean eta salmentan datza. Salmenta honekin lartu nahi duguna hau da: beharrak dituzten pertsoneri laguntzea. Horretarako, gure produktuaren ekoizpenean prozesu egoki bat eramatea oso garrantzitsua dela uste dugu. Honen bidez, gure produktuak ondo saldu ahal izango dugu eta garrantzitsuena, laguntza askokoak izango direlako pertsona guztientzat.

Ekoizpenean hainbat makinak eta langilek hartuko dute parte. Makinak ekoizpen katea egiteko espresuki egongo dira kokatuta, eta langileak ere. Azken hauek makinaren artean kokatuko ditugu, makinentzat egiteko ezinezkoak diren lanak egiteko.

Salmenta egokia edukitzeko ordea, egiten dugun promozioak pisu handia edukiko du, hau gabe ezingo ditugulako gure produktuak bistaratu. Honez gain, gure enpresak edukiko duen web gune propioak ere lagunduko du. Denen eskura egongo denez, edozein pertsonak izan dezake honen berri, eta sarean zehar zabalduko dugu gure produktua, eskaerak internet bidez egin daitezke.

